

## Iltzalleak

Andoni

*Euzko Deya* [Buenos Aires], 538. zk., 1961-04-30: 6.

Or Ugalde'tar Martin'ek egin duan idazti berrian izena.

Nor da baño Ugalde'tar Marti'n ezango du batek baño geiago eta nolakoa da idatziduan idazti ori?

Ugalde'tar Marti'n abertzale gaste bat da; Andoain, Gipuzkoa'ko errian jaioa orain dala ogeta amabost bat urte, Caracas'en bizi da aspaldi ontan. An izan da Elite, ikustaldian, lenengo idazpena; irabazi ditu Caracas'eko "El Nacional" isparkariak urtero egiten dituan bi ipui sariketa, eta au da bere irugarren idaztia ta lenena euskeraz argitzen duana. Gure arazoetan, Caracas'en Martin izana Euzko-Gastedi eta Euzko-Etxea'ko lendakari, Euzko-Etxea'ko lendakari, Euzko Alderdi-Jeltzalia'ren idazkari, euskera irakastola'ren irakasle eta "Euzkadi" ta "Euzko Gastedin" artezkari.

Orain Evanston, Ipar-Ameriketa'ko Illinois'ko errian dago, izperkingilla ikasten Creole'n beka batekin eta andik bialdu dizkigu bere idaztitxoa.

Idaztitxoa? Bai zera. Orri gutxi ditu noski, 69 bakarrik, baño eurak nolako orriak!

"Aurrenetakoa da" ezaten dit bere eskutitzan. "Ez da nik nai bezelakos atera, bañan asmaoa ona dala usten det. Bertatik idatzi bear dira gauz oiek bear dan bezela egiteko. Nere ustez euskera erreztu bear degu ta gure gerra ta erresistentziako gora-berak literatura gogor ta sutzu batian eman gure gaztedia berotu ta sutzeko. Emen guardazibillaren aurkako sua jarri nai izan det ta erresistenzi lanetako gogoa sortu asi".

Ibiñagabeitia'tar Andima, euskal idazlari onenatarikoak ezaten du liburu orri ipiñi dion itzaurrean: "Badu pozbiderik gure euskera xaarrak. Ugalde'tar Martin etorri zaigu euskal alorrea. Ez gero, nolanaiko lanabasekin: atxur distaistsu, sega zorrotz eta eskuare berri batekin baizik". "Bearrezkoa genuen euskotarrok ere gudu-literatura gartsu bat, eta literatura orri asiera ezin obeago ematen dio Martin Ugalde'k bere ipuin auekin".

Egia benetan Andima'k ezaten duana. Ba nork ez du negar agingo "Gizarailza" eta Zabal'n azia" irakurrita? Martine'ek gure aurrian grbi ta argi agertzen ditu españatar madarikatuak aberrian egin dituzten gaizkiak: Nemexio eta Zabale'n eriotzak! Zen bat il ote dituzte oiek bezela! Eta guardixibil madarikatu aiek...!

Ez da ez idazti txoa Martin'ek egin duana, baizik idazti sutzu ta aundi bat.

Zorionak bene-benetan Martin. Baita ere Eizmendi'tar Segundo, liburua argitu duan irarle eta Otaño.

Olako idaztiak bearditu idatzitakiak egin dituanari.

Olako idaztiak bearditu benetan Aberriak batez ere euskeras.